


BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 157. alea - 2011ko azaroa



**Emakumeen aurkako
indarkeriari EZ!**




MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS
Uzuri**

**ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

**A
D**

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPIZKOA) ase.deba@teletelne.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

**Lizaso
Autozerbitzua**

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitarteak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 918 544 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU
HARATEGIA**

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA
TABERNA**

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA
Arraindegia**

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAZZANTINI
TABERNA**

Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA**

Informatika
Transteria
Informatika

IL

Elektronika
Ongai
elektronikak

Maxepe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 89
Fax: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 801

e-mail: jk@informatikojelektronika.e.telefonico.net

**RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea:

Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:

Erredakzio taldea

Publizitatea:

Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Banaketa arduraduna:

Juanma Oiartzabal

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

aurkibidea



Ander Salegi

KOLABORAZIOA: Mattin Urbiet, "Geure esku(z)". **05**

KRONIKA: "Musikaren soinua. Euskararen doinua. Herri baten oihua" programazioa. **06-07 LABURRAK:**

Tene Mujika Beka, Gpuntua Gipuzkoako Bertsolari txapelketa... **08-09 KIROLAK:** Amaiak Bat. **10 BERRI-**

Espainiako hauteskunde orokorrak azaroaren 20an izango dira. Amaiur, EAJ eta IUren iritziak bildu ditugu: **17**

KETAN GAZTEA: Maria Pilar irakaslea, Oreka TX...

11-14 ALBISTEAK: Itziarko Feria, Kuadrillategi,

ET Aren agiria, Azaroak 25... **15-16 ZERBITZUAK:** **18**

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.

943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2011 urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Azaroak 25: “Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna”

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, aurten, berriro ere, gazteriarengan jarri nahi-ko genuke arreta. Izan ere, indarkeriaz hitz egiteko beharraz gainera, errespetua, askatasuna, autonomia eta berdintasuna oinarri dituzten harreman afektibo eta sexualak eraikitzeke beharra ikusten dugu.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu barik, ez eta gizon eta emakumezkoen harreman afektibo eta sexualak eraikitzeke modua ere.

Prozesu horri ekiteko, beharrezkoa da erreferente positiboak edukitzea. Xedea ez da gazteriak egungo eredu kaltegarriak antzema-tea bakarrik, baita maitasuna eta sexualitatea modu askeagoan eta berdintsuagoan bizitzen ikastea ere.

Horretarako, aurtengo kanpainaren lema “Beldur Barik Jarrera” da. Gizarte berdinagoa eraikitzen laguntzen duten eguneroko jarrera txiki horiek landu nahi ditugu gazteekin. Neskekin, euren autonomia eta jabe-kuntza sendotzen dituzten jarrerak landu nahi ditugu, izan ere, horiek mugak gainditzen eta estereotipo sexistak apurtzen lagunduko diete. Mutilekin, berriz, matxismoa deslegitimizatzeke jarrerak landu nahi ditugu, baita maskulinitasun hegemonikoaren eredutik aldentzekeok ere.

Horren guztiaren jakitun, DEBAKO UDALAK:

ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarriz neska gazteengan, eta,

betiere, euren partaidetza aktiboarekin.

Era berean, **GONBIT EGITEN DIEGU** Debako herritar guztiei, eta bereziki neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Debako Udaleko Berdintasun Saila

EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIARI EZ



ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



MATTIN URBIETA

GEURE ESKU(Z)

Nondik gatozen, non garen, nora goazen. Nor ziren, nor garen, nor izango diren. Geldiezin dirudien denbora hirutan bereizi ohi dugu; urrunduz doan iraganean, etengabeko aldakortasuna pairatzen duen orainean eta izan gabe den etorkizunean.

Zenetik, iraganetik hasita; esan ohi da historia garaileek idazten dutela. Konkistatzaileek idazten, idatzarazten, dutela nioke nik, gutxienez duela ez asko arte, eta garaituak irakurtzera behartzen dituztela, gainerako oro ukaraziz. Gertaera bakarra izanagatik, beronen kontaktuzun asko daude, begiak beste, edo gutxienez begi pare haina. Baina orain arte, bakarra kontatu, eta gainerakoa ezkutatu digute.

Etengabe idatziz doa historia, eta egun bizi dugun egoera kontuan harturik, gertakariak zein bilakaera izan duten, eta zein norabide hartzeko itxura duten, esango nuke aukera badugula behingoz, konkistatzaileen historia baztertu eta begi ezberdinek ikusitako, alde ezberdinek bizitako historia idazteko. Eta bide batez, denbora luzez ilunpean gorde diren, ukatuak izan diren pasarteak

azaleratzeko, argitzeko; ixteko eta sendatzeko oraino zabalik dauden zauri zaharrak, zeinetako askok badirauteen hala aspalditik.

Biharrak zer dakarren, ezta izango den, jakitea ez da inoren esku. Baina bitartean, badugu aukera etorkizuna gure eskuez

sortzeko, eta hori ukatzen badigute, hori hala izan dadin

borroka gaitzke. Badirudit bizi dugun garaiak zeresan handia izango duela etorkizunean; geroaren sorkuntzan; etorkizuna sortzeko eskumena norengan, nortzuengan izango den.

Laster izango dira bost mende ebatsi zigutela gure historiaren zati bat; gure herriaren etorkizuna izan zitekeena eskuetatik erazi zigutela bost mende luze. Gure

etorkizuna erabakitze, sortzeko, eraikitze, aukera. Burujabe izateko aukera. Ez dakit ez asko barru gure etorkizuna erabaki ahal izango dugun, baina itxaropentsu naiz.

Itxaropena haizeak eraman ez dezan, ez dadin airean gal, egingarri izan dadin; eutsi diezaiozun batera, goazen pausoz pauso aurrera.



Musikaren soinua Euskararen doinua Herri baten oihua

“Musikaren soinua. Euskararen doinua. Herri baten oihua”.

Hauxe izan da Udaleko Euskara Sailak aurtengo irail-urrian landu duen programazioaren leloa. Iaz bezala, puntu hauen inguruan hausnarketa egitea izan du xede.

1.-Euskal musikak eta musikagileek euskaldunon kultur identitate eraikitzerakoan izan duten eragina ikusi eta gaur egungoek ere izan dezaketenez hausnartu.

2.-Herriko taldeak erreferente diren neurrian, herrian izan dezaketenez eraginaz jabetu eta, zentzu horretan, eragile aktibo izateko proposamena luzatu.

3.-Taldea bakoitzaren egoeratik abiatu eta urrats konkretuak ematera animatu.

4.-Kanpotik datozen eraginak jaso eta geure tradizio eta ohituraren galbahetik pasaz jarduera moderno eta ikusgarriak egin ditzakegula erakutsi.

Hitzaldi eta dokumentalek eta neurri batean baita herriko musika taldeen topaketak ere, lehenengo bi helburuak erdiestea zuten xede. Hitzaldi eta dokumentalei dagokienez egiten dugun balorazioa honako hau da:

Jende oso gutxi etorri da

hitzaldietara; baita dokumentaletara ere. 15 bat lagun batzaz beste. Deban musika taldeetan dabilen jende kopurua ikusita, eta arrazoiak arrazoi, ulergaitza egin zaigu asistentzia eskas hori. Ondorioz, zalantzan jarri behar dugu aipatutako lehenengo bi puntuetan jasotako helburuen lorpena.

Hitzaldi eta dokumentalen inguruan aipagarriak, interesgarriak izategatik, iruditzen zaizkigu Josu Zabalak egindako saioa (arrazoiz, iritziz eta proposamenez bete) eta “Zai, zoi, bele” eta “Salda badago” dokumentalak (musikak gure historian izan duen indarraz jabetzeko ezin aproposagoak).

Musika taldeen topaketak, goian aipatutako bi helburuez gain, bazuen beste bat ere:

- Gaur egungo musika taldeen arteko harremanak sustatzea: ez zen asmoa kontzertu bat eskaintzea, nahiz eta forma hori hartu zuen azkenean. Zerbait informala, alaia, ... musikariek elkarrekin une goxo bat pasatzeko modukoa...

Emanaldiari begira honakoak azpimarratuko genituzke:

- Urteen joanean euskal musika nola garatu den entzun ahal izan genuen lehenengo eta gaur egungo taldeen aho



zein instrumentuetatik.

- Lehenengo taldeak zernolako garaietan sortu ziren, zertarako, nola ibiltzen ziren, ... jakin ahal izan genuen. Historia pixka bat ikasi ahal izan genuen.

- Aspaldi elkarrekin jo eta kantatu gabe zebiltzanak, ilusioz heldu zioten berriro jendaurrean irteteko erronkari. Horrek balio emozional handia du.

- Generazio desberdinetako jendea bildu zen. Lehenengo nagusiak eta gaurko gazte zein gaztetxoak.

- Gaztetxeko taldeak ere beraien musika moduak erakutsi zizkiguten. Orokorrean, polita. Hori izan da,



Josu Zabala (Hertzainak, 7 Eskale, Gu ta gutarrak...).



Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi).

uste dugu, jende gehientsuenaren baitan geratu den sentsazioa. "Datozen urteetan errepikatu beharrekoa", esan digu hainbatek. Hobetu beharrekoak ere badaude, ordea:

-Aurkezpenak luzetxo geratu dira. Horiek paperean ematea izan daiteke beste aukera bat.

-Megafoniarik ez genuela beharko uste genuen eta aurkezpenetarako oinarritzko soinua besterik ez dugu izan. Datozen urteetan berriro egitea erabakiz gero, soinu ekipo minimo bat ipini beharra dagoela ikusi dugu.

-Hasieran aulkirik ez ipintzea pentsatu genuen, lehen esandako informaltasun horri lagunduko ziolakoan. Aurtengo formatua mantenduz gero, aulkiak ezinbestekoak direla ikusi dugu.

Topaketaren lehenengo helburuei begira, nolabait bete direla esango genuke; azkenari begira, ordea, ezetz esan beharra dago. Ez da formatu egokia izan taldeen arteko harremanak bideratzeko. Planteamendua, behintzat, ez da bete-betea. Taldeak elkarrekin egoteko, elkar ezagutzeko, hitz egiteko, ... moduak topatu behar dira. Pare bat kantu denek elkarrekin jo/kantatzea izan daiteke bide bat (entseguak-eta egin beharko liratekeelako elkarrekin) edota musika taldeentzat bakarrik izango den ekitaldi bat prestatzea, ...

Taldeen beraien aportazioak jasotzea lortu nahi genuke helburu horiek aproposak diren edo ez, eta bideak zeintzuk izango liratekeen

erabakitzeko: seguru asko berdefinitu egin beharko dira helburuak eta horien araberrako jarduerak zehaztu.

Azken helburua lortze alde- ra eta euskaraz gauza modernoak ere egin daitezkeela erakutsi nahian antolatu dira hip-hop eguna, perkusio tailerra eta "Hostoak" ikuskizuna. Hiruak ala hiruak ondo joan dira.



Hip-hop egunean grafitia egiteko aukera izan genuen goizean; arratsaldean, berriz, break dance-aren oinarritzko pausoak erakutsi zizkiguten eta euskaraz ondo baino hobeto "rapeatzen" zuten kantariak entzun ahal izan genituen. Jendea dantza ikasteko gogoarekin geratu zen. Aurrera begira ikusi beharko horrelako ikastarotxo bat antolatze-ko moduan gauden.

Oreka TX, Kukai dantza taldea eta Amaren Alabak kantariak dira "Hostoak" ikuskizuna sortu dutenak. Elkarlanean egindako emanaldia bikaina izan zen; dantza, txalaparta eta kantua primeran uztartzen ditu ikuskizunak. 400 bat ikusle bertaratzea espero genuen baina

asistentzia hori baxuagoa izan da (250 sarrera inguru saldu dira). Kosta egiten zaigu jendea betiko errutinetatik ateratzea kanpokoen emanaldietara etortzeko. Herriko taldeen ikuskizunetara, berriz, aisa joaten da jendea; eta hori, bere horretan, ez da batere txarra. Apustua herrikoekin egin behar dela iradokitzen du.

Azkenik, amaitzeko, perkusio tailerra dugu, Xabi Azkarate debarraren eskutik, urriko azken bi larunbatetan burutuko dena. 30 bat herritar matrikulatu dira (haur, gazte zein heldu) eta bi taldetan lan egingo dute. Batzuk goizean eta besteak arratsaldean. Lerro hauek idaztean bigarren saioa burutu gabe dago. Ezin, beraz, ikastaroaren baloraziorik egin. Nolanahi ere, interesatu kopuruari begira, arrakastatsutzat jo behar dugu eta horretan Xabik izan duen jarrera txalotu behar dugu. Tailerra aurrera eramateko hasieratik erakutsi duen prestasunagatik eta, izen-ematea ikusi ondoren, talde bat ez baizik eta bi talde, hau da, bi larunbat oso, tailerrari eskaini izanagatik.

Besterik ez. Balorazioak datorren urterako hausnartzeko eta birpentsatzeko gauza mordo batekin amaituko dugu urtea. Lehenago, urteroko bertso- paper sariketa, merkataritzan euskaraz hitz egiteko kanpaina, familientzako sukaldaritza ikastaroa eta beste ekintza batzuk antolatuko dira.

Udaleko Euskara Saila



"Hostoak" ikuskizuneko zenbait une.

VII. TENE MUJIKA BEKA

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, VII. Tene Mujika beka sortu dute, 6.000 euroko dirulaguntza emango duena.

Gure herriaren azken 60-70 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak aurkez litezke (biografiak, kronikak, erreportajeak, elkarrizketak...); lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, eta aurrez argitaratu nahiz saritu gabea.

Bekaren antolatzaileek azaldu dutenez, proiektuak aztertzean, bi ezaugarri hartuko dira batez ere kontuan: testuaren beraren kalitatea eta gaiaren interesa.

Proiektuak 2011ko abenduaren 1a arte bidal daitezke, Debako udaletxera. Gero, Lorea Agirrek, Alberto Barandiaranek eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaiak, jasotako lan guztiak aztertu eta haien arteko bat izendatuko du irabazle 2012ko urtarrila amaitu baino lehen.

Debako Udalaren webgunean (www.deba.net) kontsulta daitezke bekaren oinarriak.

Euskaldunon sarea zabaltzen boluntarioa izan nahi duzu?

Nahi baduzu, nahikoa da astean ordubete libre izatea



Mintzalaguna egitasmoa indartsu abiatu da aurten. Hasierako izenemate kanpaina amaituta, ikasturte honetan lau talde sortzeko asmoa dauka Zuhatza Euskara Elkarteak. Proiektuan parte hartzera animatu diren pertsonen ordutegiak kontuan hartuta, mintzalagunen saioak honako ordutegietan izango dira: astelehenean, 18:00etatik 19:00etara; astearteetan, 17:00etatik 18:00etara; asteazkenean, 18:00etatik 19:00etara; eta ostegunetan, 16:00etatik 17:00etara. Dena den, ez da baztertzen aurrerantzean talde berriren bat sortzeko aukera ere.

Dakizunez, Mintzalagunak euskaraz jarioratasunez hitz egiteko zailtasunak dituztenei euskara praktikatzeko aukera eskaintzen die. Baina proiektuak aurrera egin dezan euskaldunen sostengua behar du, aurretik aipatutako saioak indartu ahal izateko.

Laguntzaile baten inguruan elkartu ohi dira solaskideak, talde txikitian, giro lasaiean, herriko edozein txokotan eta gustuko edozer eginez mihia gure hizkuntzaz astintzeko. Finean, erabiliaren erabiliaz trebatzen garelako hizkuntzetan.

Lerro hauen bitartez, bi mezu helarazi nahi ditugu oraingoa. Batetik, **euskara praktikatu nahi duten herritarrei dei egiten diegu egitasmoarekin bat egin dezaten**. Eta, bestetik, horiei guztiei lagundu ahal izateko aurten ere **boluntario euskaldunengana gatz laguntza eske**, halabeharrez. Nahikoa da astean behin ordubete libre izatea eta euskaraz jarioratasunez hitz egitea. Beraz, animatu eta hurbildu elkartera, euskararen normalizazioan urrats esanguratsua ematen lagun dezakezu eta!

Abian da dagoeneko "Zubeltzu" III. Bertso Paper Sariketa

Debako Udalaren eta Zuhatza Euskara Elkartearen artean antolatutako "Zubeltzu" bertso paper sariketaren hirugarren edizioa abian da dagoeneko. Sariketan Deba eta Itziarko herritarrek parte har dezakete, eta aurkeztu beharreko bertsoak jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta inon saritu gabeak izango dira. Egileak neurria eta doinua aukeratu ahalko ditu, baina doinua zein den adieraztea eskatzen da. Bertso bakoitzari bere ordena zenbakia jarriko zaio.

Hiru kategoriatan banatzen da sariketa: Lehen Hezkuntza (2000.ean jaiotakoak eta gazteagoak), DBH (1996-1999an jaiotakoak) eta nagusiak (1995ekoak eta zaharragoak), eta kategoria bakoitzean hiruna sari banatuko dira. Abenduaren 16an amaituko da lanak aurkezteko epea, eta urtarrilaren 7an banatuko dira sariak. Lehiaketaren nondik norakoak ezagutzeko Debako Udaleko Euskara Sailera edota Zuhatzara jo dezakezue.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Aralarko mendi irteera. Zorionak!



Urriaren 9an Burdin Gurutzek ikasleekin Aralarrera egin zuen irteera, eguraldi aldetik ona izan ez bazen ere, ibilbidea eta mendizaleen partaidetza primerakoak izan ziren, batez ere umeena; zoriontzekoa.

Ibilbidea, trabesia moduan antolatuta zegoen, Aralarko guardaetxe ingurutik Lizarrustira. Xirimiritan ibili ginen, baina ondo babestuta pago artean, ez da alferrik Euskal Herriko pagadirik handiena. Orbelik apenas zegoen eta perretxikoak gutxiago; bat edo beste bide ertzean. Pagoen kolorea oraindik berdea zen eta hostoz gainezka zeuden umeen jolaserako: adarrak ukitu eta zaparrada ederra, atzetik, umeen erritmoa jarraitu ezinik genbiltzanontzat.

Nire alaba Elaiak, aste barruan esan zidan: -“Aita, mendira joan nahi dut”. Nik, harridura aurpegiarekin: -“Benetan????”. Zalantzak nituen, baina eguna iritsi zen eta poz-pezik abiatu ginen. Mendian primeran ibili zen (ez azkenekoan bezala) eta lerro hauek aprobetxatuko ditut Elaiak zoriontzeko eta, bide batez, Burdin



Gurutzeko antolatzaileei eskerrak emateko. ZORIONAK egiten duzuen lanagatik, nahiz 150 herritarrek egun horretan jarritako entusiasmoak hitzak berak baino gehiago demostratzen duen. Segi horrela eta ANIMO guztioi. Hurrengo irteera arte.

Juanma Oiartzabal

Bazatuz Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finalera?

Gpuntua Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala abenduaren 18an jokatu da Donostian, Illunbe zezen-plazan, eta bertara joan nahi dutenentzat sarrera arruntak salgai ditugu dagoeneko Zuhatza Euskara Elkarteak, 18 euroen truke. Bazkide sarrerak edo gazteen sarrerak (16 urtetik beherakentzat) nahi dituenak, internetez erosi beharko ditu www.bertsosarrerak.eu helbidean.

Abenduaren 18ko finala 16:30ean hasiko da, eta Zuhatzak, Gipuzkoako Bertsosale Elkartearekin elkarlanean, Illunbera joateko autobusa antolatzeko asmoa ere badu (5 euro inguruan). Interesatuak sarrera erosterakoan eman dezakezue izena.

Finalaren atarian gaudela eta, lehiaketako azken txanpan burubelarri sartuta dabilta bertsolariak, eta giroa berotzen hasia dago jada-



nik. Beraz, badakizu, animatu finale-
ra eta eskura ezazu zure sarrera
agortu baino lehen!

Zuhatzaren zozketa

Zuhatzakide bazara, dena den, akaso ez duzu sarrerarik erosi beharko. Izan ere, **pare bat sarrera zozketatuko ditugu gure bazkideen artean** (laster jakinaraziko ditugu sarrituen izenak). Zorte on, Zuhatzakide!



DEBAKO
BOTIKAK

GOARDIA 24 ORDUZ

• ZALDUEGI: Tel. 669 262 201

Azaroak: 18, 19, 20, 28, 29, 30. Abenduak: 1, 16, 17.

• BURGOA ZUAZO Tel. 667 338 890

Azaroak: 15, 16, 17. Abenduak: 2, 3, 4, 12, 13, 14, 15.

Larunbat goizetan beti bat irekita:
9:30 - 13:30



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



Amaiak Bat

Nagusiak, gazteak, kadeteak eta haurrak gizonetzkoen mailan, eta haurrak eta kadeteak emakumezkoen mailan. Horietxek dira aurtengo denboraldiko Amaiak Bateko taldeak (alebin eta benjamin mailako 110 haur mugitzen dituen futbol eskolaz aparte).

Presidente kargua Dabi Sagarnak du eta Ina Esnaola da zuzendariordea. Bestetik, Iñaki Irigoyen dabil elkarteko idazkari lanetan, eta Enrique Salgado hartu zuen bere gain diru kontuen ardura.

Herriko futbolarietara aurpegia jarri nahian, hemen azpian dituzue 2011/12 denboraldiko Amaiak Bateko taldeen argazkiak:



Infantilak, emakumezkoak



Infantilak, gizonetzkoak



Kadeteak, emakumezkoak



Kadeteak, gizonetzkoak



Jubenilak



Nagusiak

BERRIKETAN GAZTEA

2011ko azaroa
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

maria pilar
andereñoa



Maria Pilar Lehen Hezkuntzako irakaslea da Luzaron. 37 urte daramatza irakasle. Beraz, Luzaro eskolatik pasatu diren ikasle gehienek ezagutuko dute seguruenik, eta denek oso pertsona eta irakasle ona dela esango dute.

Maria Pilarri omenaldi bat egin nahi diogu artikulu honekin, eta eskerrak eman gure irakasle izateagatik. Uda honetan gorabehera asko izan ditu, baina orain askoz ere hobeto dago. Tutore bezala edukitzea zorte handia da, asko arduratzen da eta: bere ikasleak zaintzen ditu, ikasleen arteko harreman arazoak konpontzen saiatzen da... asko gustatzen zaio bere ikasleak entzutea eta laguntzea.

Lanean dagoenean gehien atsegin dituen arloak Matematika eta Ingurunea

dira. Ikasleekin irteeretara joatea asko gustatzen zaio, eta Plastikan antzerkiak, jaialdiak eta bertso saioak prestatzea ere bai. Berak dioenez, bere lana asko atsegin du, baina jolas-orduak iristeko zain egoten da atseden pixka bat hartzeko.

Ez da irakasle gogorra, ondo irakasleentz dakielako, baina azterketa sorpresa asko egiten ditu. Eskola ez zaio gustatzen. Hala ere, Maria Pilarrekin desberdina zen, oso gustura egoten ginen eta orain baino askoz hobeto pasatzen genuen.

Bizitzan gauza asko pasatuta ere, alai dago beti, eta ingurukoak alaitzen ditu. Guztiok nahi dugu berak horrela segitzea, den bezalakoa izatea, eta inoiz ere ez aldatzea. JARRAITU HORRELA!

Gure irakasle gustukoenetariko bat izan zara! Eskerrik asko guztiagatik!



Oreka TX: “Txalaparta komunikatzeko erabiltzen zen lehen”

Ikastetxera hitzaldi bat ematera etorri zirela aprobetxatuz, txalaparta munduarekin zerikusia duten Oreka TX-ko Arkaitz eta Mikel elkarrizketatu ditugu.



Azken boladan ikuskizunak eskaintzen ari zarete. Zer lekutan egin dituzue ikuskizun horiek?

Euskal Herriko hiriburu guztietan egon gara ikuskizunak ematen. Debakoa hamabigarren kontzertua izango da. Kukai Dantza konpainiarekin eta Amaren Alabak taldearekin elkarlanean gabilta.

Zer dela eta hasi zineten txalaparta jotzen?

Gehienbat egurraren soinuagatik, baina pixkanaka beste material batzuekin ere animatu ginen, harriarekin eta abar. Txalaparta biren artean jo behar da, elkarrizketa bat balitz bezala. Lehen, txalaparta komunikatzeko erabiltzen zen. Ez dugu honekin ulertu behar txalapartarekin hitz egiten zutenik, baizik eta txalapartaren bidez zenbait gertaeraren berri jakiten zutela herritarrek: adibidez, sagardoa egiten zenean jotzen zen, edo norbait hiltzen

zenean bere hiletan ere jotzen zen.

Zer musika mota jotzen duzue?

Denetik jotzen dugu. Tradizionalekin hasi ginen.

Zein musikarirekin egin duzue lan? Estilo alde-tik zertan berdintzen eta desberdintzen zarete?

Batez ere musika tradizionala jotzen duten musikariek egin dugu lana, baina mundu guztiko musikariek aritu gara. Munduko objektu desberdinekin jotzen dutenez, soinuan dago desberdintasuna.

“Nomadak TX” film dokumentala grabatua duzue. Eszena horiek non grabatu dituzue?

Lau herrialde ezberdinetan dago grabatuta: Indian, Laponian, Saharan eta Mongolian. Herrialde horietan bertako materialarekin jo genuen txalaparta, adibidez, Laponian jelarekin.

EGILEAK: NEREA AGIRREGABIRIA ETA LEIRE ALBERDI



INKESTA

DENBORA

Nolakoa ote da institutuko ikasleek duten denborari buruzko ikuspegia? Hori jakiteko asmoz egin dizkiegu ondoko galderak:

- 1.- **Nolakoa egin zaizu uda? Luzea ala motza? Zergatik?**
- 2.- **Orain arteko eskola denbora azkar pasa al zaizu?**
- 3.- **Nola ikusten duzu pasako zaizula ikasturtea?**
- 4.- **Zer klase-ordu pasatzen zaizu polikien? Eta azkarren?**
- 5.- **Orain arteko zure bizitzan zer ikasturte pasa zaizu azkarren? Eta polikien?**



Naiara Mantzidor:

- 1.- Motza. Ondo pasatu dudalako.
- 2.- Ez. Ez zaidalako eskola gustatzen.
- 3.- Poliki. Ez zait eskola gustatzen.
- 4.- Polikien Gizarte, aspertu egiten bainaiz, eta azkarren Erliijo, Luma-ekin ondo pasatzen dugulako.
- 5.- Azkarren Lehen Hezkuntzako (LH) 2. maila, maisu ona genuelako. Polikien, ez dakit.



Ander Iriondo:

- 1.- Motza. Besterik gabe.
- 2.- Bai. Lagunengatik.
- 3.- Normal.
- 4.- Polikien Gizarte, aspertu egiten naizelako. Azkarren Plastika, ondo pasatzen dudalako.
- 5.- Polikien 1. DBH, aldaketagatik. Azkarren ez dakit, denak poliki pasatzen zaizkit.



Garazi Beristain:

- 1.- Motza. Eskolan aurreko urteetan baino azkarrago hasi garelako.
- 2.- Bai. Denbora luzea egin dugulako goizez bakarrik.
- 3.- Ez dakit.
- 4.- Polikien Gizarte, dena teoria delako. Azkarren Mate, asko hitz egiten dugulako, eta lana egin gutxi.
- 5.- LHko 5. maila. Liburuak azkar amaitu genituelako eta gero fitxak egiten aritu ginelako. Polikien, ez dakit.



Jule Urbieta:

- 1.- Motza. Ondo pasa dugulako.
- 2.- Normal. Eskola delako.
- 3.- Nire ustez poliki, besteak baino zailagoa izango dela iruditzen zait.
- 4.- Polikien Gizarte, aspertu egiten naizelako. Azkarren Plastika, Tekno eta Mate, entretenitu egiten baikara.
- 5.- Azkarren 2. DBH. Polikien, uste dut kurtso hau, 3. DBH, izango dela.



Ane Garcia:

- 1.- Motza. Zeba bai. Kar-kar.
- 2.- Bai, ondo pasatzen dudalako.
- 3.- Azkar. Nire gelakideekin ongi pasatzen dudalako.
- 4.- Polikien Gorputz Heziketa eta Mate, aspergarriak direlako. Azkarren Artisautza eta Plastika, ondo pasatzen dudalako.
- 5.- Azkarren 1. DBH, eta polikien LHko 6. maila, zeba bai... Kar-kar.



Xabier Arostegi:

- 1.- Motza. Ondo pasa dugulako.
- 2.- Ez. Klaseetan aspertu egiten naiz.
- 3.- Polikiago besteak baino, irakasle berri asko ditugulako eta ez dakigulako nola moldatuko garen haiekin.
- 4.- Polikien Natur eta Gizarte, aspergarriak direlako. Azkarren Tekno, Plastika eta Mate.
- 5.- Azkarren 2. DBH. Uste dut kurtso hau dela polikien pasako zaidana.



Imanol Sobrado:

- 1.- Motza. Ondo pasatu dudalako.
- 2.- Bai. Hasieran ez dugulako gauza askorik egiten.
- 3.- Nahiko azkar. Lagunekin egotean azkar pasatzen delako.
- 4.- Polikien Gizarte, aspergarria delako. Azkarren Gorputz Heziketa, ongi pasatzen dudalako.
- 5.- Azkarren 1. DBH. Polikien, Lehen Hezkuntzako seigarren maila.



Josune Arakistain:

- 1.- Motza. Ondo pasa dudalako.
- 2.- Poliki. Ordu asko direla iruditzen zaidalako.
- 3.- Normal. Nire laugarren urtea denez, ohituta nagoelako.
- 4.- Polikien Euskara. Azkarren Fisika eta Kimika, gustatzen zaidalako.
- 5.- Azkarren 1. DBH, lehen urtea zelako. Polikien 3. DBH, oso irteera gutxi egin genituelako.

EGILEAK: AINHOA AZKARTE ETA ALAITZ ESCUDERO

LIBURUTEGI EGUNA



Liburutegiaren Nazioarteko Eguna ospatu genuen institutuan urriaren 24an. Aurtien 15 urte bete ditu egun horrek, eta horregatik antolatu ziren ekintza batzuk institutuko liburutegian. Batetik, 15 urte horietako txartelak jarri ziren erakusgai, eta ikasleek bozketa egin zuten gogokoena aukeratzeko; ondoren, bozketan parte hartu zuten artean zozketa egin zen, eta horrela irabazleak (Sandra Oruesagastik) gustuko zuen CDa edo liburua eskuratzeko aukera izan zuen. Bestetik, genero ezberdinetan sailkatutako liburu batzuk erakusgai jarri ziren: aldez aurretik, ikasleoi inkesta bat pasa zitzaigun, eta bertan izan genuen aukera genero bakoitzean gogokoen genituen liburuak zein ziren azaltzeko.

DenBora-pasa

Institutura Udal Liburutegiko liburuak ekartzen dira maiz, eta hauek dituzue horietako batzuen nondik norakoak:




Fatum (Jon Arretxe): Lisboako bazter ilunenak garbitzen ari da norbait: kalean dabiltzan prostituta zaharrak, jonkiak, eskale eta arloreak hilik agertzen hasi dira; horietako bat zen Mariza, eta hiltzailearen bila ekingo dio haren adiskide Mario Barbosak.

Polizia ohi eta fado-kantaria, cachaça-edale eta bihozbera, Mario Barbosa da istorio honetako pertsonaia berezi eta ahaztezinetako bat. Bestea, berriz, Lisboako hiria bera, bertako aldapa eta tranbiak, kale estu eta begiratokiak, maitemintzeko nahiz hiltzeko aproposak izan litezkeen txoko ezkutatuak....

Musika Airean (Karmele Jaio): Leihu ondoan ematen du eguna Elenak, kalera begira, munduan egin beharrekoak eginda dituelakoan. Semelabek Ekuadorreko neska bat ekarri diote, etxeko lanetan laguntzeko eta etxetik ateratzera animatzeko. Elenak, baina, bertan geratu nahi du, bere oroitzapenei atxikia.

Maitasuna eta gorrotoa, adiskidetasuna eta zeloak, bizinahia eta etsipena... sentimenduen nobela da Karmele Jaioren bigarren eleberri hau, pertsonaien nortasuna fintasunez deskribatzen duena eta, oroz gain, bizitzaren sinfonia erraldoiaren handitasuna azpimarratzen duena, bere gazi-goza eta kontraesan guztiekin.



Maitez eta minez (Antton Kazabon): Irungo neska beltzaranak bizi arazi zidan hurrengo esperientzia ikaragarriak beldurtu ere egin ninduen, eta etxera erretiratzea erabaki nuen. Hura niretzat gehiegizkoa zela pentsatu nuen. Latza izan zen, errepika ezina, bikaina, baina horrelako batekin aski nuela pentsatu nuen. Eta oraindik ere tarteka, han-hartako bizipen hartara irudimenezko joan-etorri laburrak egin ohi ditut barruak eskatzen didanean. Beharbada, amona Inexik horretaz ezer pentsatuko lukeen gehiegi pentsatu gabe.

Bai, badakit zer esan zenidan, Alexek batxilerra non egingo zuen bazekiela. Baina gero eta gehiago nabaritzen zaizu Alexenganako sentitzen duzun atrakzioa. Eta lasai, Aloña. Hori zuk ezin duzu kontrolatu. Baietz usteko duzu, irudituko zaizu, baina sentimenduak ezin ditugu guk nahi ditugun bidetik eraman. Hauek gu eramaten gaituzte nahi duten lekura eta nahi duten bidetik. Beraz, alferrik zabilta, zuk bihotzari kasu egin, eta horren aurka ez borrokarik egin, galtzaile aterako zara eta.

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TAILERRA 2011-2012

Nerea Agirregabiria	Ane Baroja
Leire Alberdi	Alaitz Escudero
Sara Anton	Ena Esmoris
Ainhua Azkarate	

Koordinatzailea: Kontxi Bengoetxea

Zurrunbilo Eguna 2011

Urriaren 29an egin zuten Zurrunbiloko txapelketa. 10:00etarako parte-hartzaile guztiak hondartzara gerturatu ziren, zeukaten onena emateko. Olatuak ez zituzten lagun izan, serie handienak metro erditik ez baitziren pasa. Hala ere, txapelketa giro ezin hobean eraman zuten aurrera. Aurten bi kategoria besterik ez ziren egon, surfa eta longboard-a, olatu nahikorik ez zegoelako bodyboard-a praktikatzeko. Egun osoa mangaz manga pasa eta gero, kopak partaideen afarian banatu ziren. Bi kanpotarrek irabazi zuten txapelketa: Jaime Irure eibartarrak (longboard) eta surfean ikuskizun handia eskaini zuen Erik Urrosolo mutrikuar gazteak.



Itziarko Feria, aurten ere jendez lepo

Itziarko Feriak irudi politak utzi dizkigu aurten ere. Urtero legez, Itziar Herria Sortzenek antolatutako gaudu feria Santu Guztien Egunean (azaroaren 1ean) egin zen. Eguraldia bikain portatu zen, eta jende ugari hurbildu zen Itziarko industrialdera. Baserriko produktuk zein lanabesak, animaliak, talo eta bestelako jakiak... denetarik izan zuten aukeran.



Ander Salegi

Gure Balioak saria

Gemma Agirregomezkorta elgoibartarrak jaso du aurtengo Gure Balioak saria, azaroaren 10ean Ermuako Lobiano Jauregian egin zen ekitaldian. Epaimahaiaren hitzetan, "Gemma pertsona ekintzailea da oso, mugak gainditu egin daitezkeela erakutsi du behin eta berriz, eta oztopoak edo beharrak bertute bihurtu ditu".

Agirregomezkortari 12 urterekin distrofia muskularra diagnostikatu zioten eta gurpildun aulkian dago ordutik. Bere ibilbidean lan mardula burutu du elbarrien gizarteratze eta laneratzearen alde eta 1985ean Elgoibarko Izpi lantegiaren sorreran lagundu zuen. 2001ean Miski izeneko GKEa sortu zuen. Elkarte horrek Perun Cusco zonaldeko komunitateei laguntzea du helburu nagusi, bertako haurren eta, batez ere, neskatilen eskolaratzea bultzatuz. Bere ekimenez bideratutako laguntzari esker 600 bat ume eskolatu dira jadanik.

Debegesak 2010ean sortu zuen Gure Balioak saria, gure eskualdean gizarte-balioetan oinarritutako jardunbidea izan duen pertsona edo entitate publikoki aitortzeko. Lehen edizioan, M^a Teresa Ganchegui eibartarra saritu zuten.



Badator Kuadrillategi!!

Aurtengo Kuadrillategi hastear da, eta inoiz baino indartsuago. Inoiz baino gazte gehiagok hartu nahi izan du parte proiektuan, eta hasiera batean behintzat, pasa den urteetako asistentzia maila era nabarian igo da, 60 gazte inguruk eman baitute izena.

Gogoratu, ekimen hau 2. eta 3. DBHn aurkitzen diren gazteekin eramaten dela aurrera eta kuadrilla mailan euskararen erabilerari bultzadaxo bat ematea duela helburutzat. Astero-astero eta azarotik maiatzera bi orduko saioak egiten dira gazteekin eta gaur arte gehien landu izan den gaia antzerkia izan bada ere, oraingoan antzerkiaz gain, gazteek gustuko dituzten bestelako jarduerak ere aurrera eramango ditugulakoan gaude. Esaterako, gizartearen pil-pilean dauden gaien inguruan hausnartu eta hitz egitea, eskulanak egitea, beraien ideetatik sortutako Lip Dub bat burutzea, sukaldaritza... eta

horrelako beste hainbat ekintza eta jarduera eskatu dituzte gazteek izena ematerako garaian.

Beraz, ikus daitekeenez, potente dator aurtengo Kuadrillategi. Ea ba guztion partetik jarri eta denontzat entretenigarriak diren saioak aurrera eramanez, ikasturte polit bat erdiesteko gai garen.

Kuadrillategiko gazteak



ETAk jarduera armatua uzten duela iragarri du

Aieteko konferentzian egin zioten eskariari erantzunez, erakundeak urriaren 20an eman zion amaiera 52 urteko jardunari

ETAk urriaren 20an jakinarazi zuen "jarduera armatua behin betiko amaitzea erabaki" duela. 52 urteko borroka armatuaren ostean, "adierazpen historikotzat" jo zuen ETAk bere iragarpena. Eta albistea denon ahotan ibili da azken asteotan, euskal gizartean zein nazioarteko komunitatean.

Adierazpena publiko egin baino hiru egun lehenago Donostian burututako **Konponbidea sustatzeko Nazioarteko Konferentzian** hitzartutako erabakiekin bat egin zuen erakunde armatuak. Izan ere, bere esanetan, bertan adostutako ebazpenak "gatazkaren konponbide osorako osagaiak biltzen ditu eta nazioartearen eta euskal jendarteren sektore anitzen babesa du".

Nazioarteko eragileek ETARI dei egin zioten "jarduera armatuaren behin betiko amaiera" iragartzeko. ETAk halako iragarpena egingo balu, Espainiari eta Frantziari "gatazka armatuaren ondorioez soilik aritzeko elkarrizketak zabaltzeko" eskatu zieten eta, besteak beste, ordezkari politikoei hitz egiteko eskatu eta Jarraipen Batzordea era-

tzeko prest ere agertu ziren eragileak. Hori guztia jasotzen zuen ebazpen publikoa Kofi Annan Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi ohiak, Gro Harlem Brundtland Norvegiako lehen ministro ohiak, Bertie Ahern Irlandako lehen ministro ohiak, Pierre Joxe Frantziako



Barne ministro ohiak, Gerry Adams Sinn Feineko presidentea eta Jonathan Powell Erresuma Batuko kabineteko buru ohiak sinatu zuten.

Aieten adostutako agiriko lehenbiziko puntua bete du, beraz, ETAk. Eta berak ere, gidoi hura jarraituz, Espainia eta Frantziako gobernuei dei egin die, "gatazkaren ondorioei konponbide ematea helburu izango duen elkarrizketa pro-

zesu zuzena zabaltzeko, konfrontazio armatua gainditu ahal izateko".

"Aro politiko berria"

"Euskal Herrian aro politiko berria zabaltzen" ari dela ulertzen du ETAk, "mendeetako gatazka politikoari konponbide justu eta demokratikoa emateko aukera historikoa" dagoela iritzita. Bere esanetan, "indarkeria eta errepresioaren aurrean elkarrizketak eta akordioak ezaugarritu behar dute aro berria. Euskal Herriaren aitortza eta herri borondatearekiko begirunea ukazioari gailendu behar zaizkio. Hori da euskal herritarren gehiengoaren nahia".

Espainia eta Frantziako gobernuei egindako eskaeraz gain, Euskadi Ta Askatasunak euskal jendarteriari ere dei zuzena egin dio bere komunikatuan, "konponbide prozesuan murgil dadin, bake eta askatasun agertoki bat sortu arte".

Bere mezuan aitortzen duenez, hemendik aurrera egin beharreko bidea ez da erraza izango, baina "etorkizunari itxaropenez begiratze-ko unea da. Baita ausardiaz eta arduz jokatzeko unea ere".

Ekimen ezberdinak antolatu dira Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna azaroaren 25a izango da, eta egun horren bueltan ekimen ezberdinak antolatu ditu Debako Udaleko Berdintasun Sailak. Deialdietan parte hartzeko deia ere egin die herritar guztiei.

Egitaraua Beldur Barik! lehiaketaren sari banaketarekin (eta ondorengo lunch-arekin) abiatuko da, azaroaren 18an (ostirala). Ekitaldia Kultur Elkartearen izango da, 19:00etan.

Azaroaren 23an, bestalde, Helena Tabernaren "Nagore" (Nagore Laffage) film dokumentala proiektatuko dute (Kultur

Elkartean, 19:00etan). Eta emanaldiaren ostean tratatu txarren inguruko kafe tertulia ere egingo da (euzkaraz/gazteleraz), Jaione Juaristi psikologoaren parte-hartzearekin.

Elkarretaratzea, 19:00etan

Azaroaren 25ean bertan, elkarretaratzea egingo da "Beldur Barik"

lelopean. Foruen plazan izango da hitzordua, 19:00etan.

Aurtengo egitarauari hila-ren 26an (larunbata) emango zaio amaiera, Donostiako Emakumeen Etxean (Okendo kalean) egingo den Beldur Barik 2011 Topaketekin. Hitzordua Berdintasunaren antolatua da, eta 11:30ean hasiko da.



Orain bi urte egindako mobilizazioa.

Espainiako hauteskunde orokorrak azaroaren 20an izango dira. Data horri begira, Amaiur, EAJ eta IUri euren proposamen politikoaren berri emateko tar-tea eskaini nahi izan die *Berriketan*-ek. Hona hemen bakoitzak azaldutakoa:



DEBAN ERAIKI ZUBIA

Ezker Abertzalea, Eusko Alkartasuna, Alternatiba eta Aralarren arteko koalizioa da Amaiur.

Bizi dugun une historikoan espainiar eredu politiko, ekonomiko eta kulturalaren aurrean bere etorkizunaren jabe izan nahi duen nazioa badela esango dugu argi eta ozen, aldaketa politiko eta sozialaren prozesuan behin betiko bakea, aitortpena eta konponbide demokratikoen eskematokia eskatzen duen nazioa.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta

Nafarroako herritarrok subjektu politiko bat osatzen dugula, eta horregatik Estatu espainiarrarekin eta Europarekin barne zein kanpo harremanak zeintzuk izan behar duten erabakitzea guri dagokigula aldarrikatu eta exijitzera goaz Madrilerara.

Zubiak eraiki nahi dizkiogu Euskal Herriari. Zubiak eraiki nahi dizkiogu etorkizunari, askatasunari, erabakitze eskubideari, bakeari zein justizia sozialari.

Horretarako, lehenik eta

behin, gure arteko eta euskal jendar-tearekiko zubiak eraikitzeari ekin diogu. Madrilen dagozkigun eskubideen aldarrikapena egitea jarri dugu helburu. Elkarlana eta indar metaketa ordezkatzen dituen Amaiur dugu bitarteko.

Herriz herri, debarrok ere gure zubia eraikiko dugu eta denon bozka beharrezkoa da horretarako. Zuekin, gure zubia.

Azaroaren 20an, Bozkatu Amaiur!



HERRITARREK ZERGATIK BOZKATU BEHAR DUTE EAJ-PNV?

Galdera batzuk jarri nahi ditugu herritar eta debar bakoitzak erantzuteko:

Nola egongo gineteke gaur egun EAJk egin duen funtsezko bidea eta urratsak eman beharrean, kontra-koak egin izan balitu? Alegia, zein izango zen Euskal Herriaren egoera gaur egun ETaren indarkeria eta borroka armatua justifikatu dituen estrategia onartu izanez gero urte hauetan guztietan, Espainiako indar armatu eta Estatuaren aurka? Nola egongo gineteke EAJk erabat uko egin izan balio Euskadirentzat Estatutua negoziatu eta lortzeari, erakunde propioak eraikitzeari, Jaurilaritza eta Legebiltzarra osatzea-

ri? Nola geundeke euskaldunon zergak Madrilek biltzea onartu izan bagenu, Espainia gure diruaren zatirik handienekin geratu balitz, guri apurkak emanek? EAJk aukera hori egin balu, nola egongo ziren orain ikastolak, euskal kultura eta euskara? Eta gizarte-justizia nahiz industria, Kontzertu Ekonomikoak ematen dizkigun ahalbide politiko eta ekonomikorik izan ez bagenu? Zein erreferenterri jarraituko lioke herriaren gehiengoak EAJk uko egin izan balio hasiera-hasieratik, ororen gainetik giza eskubideak defendatzeari, eta eten gabe, behin eta berriz esanaz, herririk eta bizikidetzarik ez dagoela tiro eta bonbak jarritz? Inork hitz egingo ote zuen gure herrian “era-

bakitzeko eskubideaz”, Ibarretxe Lehendakariak eta EAJk asmatu eta Estatutu Politiko Berria landu ez balute? EAJk lider-tuta, herriak, ETari eta indarkeriaren justifikazioari bizkar eman diola ikusi gabe, egingo al zuen ezker abertzaleak egin duen aldaketa azkenean ETarena amaitu dela erabakiz?

Uste dugu galdera horien erantzunetan aurki ditzakeela norberak Euskadiko Herria aurrera bultzatzen jarraitu eta botoa emateko arrazoiak. **Etorkizunerako ere aukerarik onena da EAJ-PNV, Euskadiren erabakitzeko eskubidea aurrera atera eta krisi ekonomikoa gainditu eta gizarte-oreka zuzena bermatzeko.**



JAIKI!

Hiritar agurgarria, Historia garaikideko krisi ekonomiko latzena pairatzen ari gara. Ez da beharrezkoa, hainbat pertsonetan sortzen ari den sufrimendua azaltzea. Enplegua sortzea nahitaezkoa da.

Gelditze ekonomiko eta langabezia egoera honetara ekarri gaituzten PSOEek eta eskuinak martxan jarritako politikak aldatu behar ditugu. Krisiak irtenbidea duela uste dugu,


erraza ez bada ere. Hau da gure konpromisoa:

- Enplegua guztiaren gainetik.
- Enpresa txiki eta autonomoei laguntzea ekonomia estimulatzeke asmoz.
- Demokrazia merkatuen aurrean.
- Osasun eta Hezkuntza publiko eta kalitatezkoa.
- Gehien dutenek gehiago ordaindu dezatela.
- Etorkizunarekiko ilusioa berreskuratzea.

Azaroaren 20an boterea zure eskuetan dago. Ez da, zalantzak direla eta, gauzak dauden moduan uzteko momentua. Iraultzaren palanka zure botoa da.

Horregatik, elkarrekin egoera hau konpontzeko zurekin kontatzen dut: gaur egungo politikak aldatu eta enplegua sortzeko.

Adeitasunez



AGENDA

Azaroak 17, osteguna:

-9:30ean, Aisia Kresala Hotelean. **Debabarreneko VII Turismo Jardunaldiak:** "KULTURA ONDAREAREN balioa eta bere eginkizuna gune turistikoaren gizarte -eta ekonomia- garapenean".

Azaroak 20, igandea:

-Deba ibaiaren garbitzeko lan saioak egingo dira Soraluze, Eibar, Ermua eta Mallabian. Argibideak zein izen-emateak, 943 82 01 10 telefono zenbakian edo riodeba@debegesa.com posta elektronikoan.

Azaroak 25, ostirala:

-19:00etan, Foruen plazan. **Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna** dela eta, elkarretaratzea egingo da.

Abenduak 3, larunbata:

-Euskararen Nazioarteko eguna.

LEHIAKETAK ETA BEKAK

-III. Animadeba Gortina Lehiaketa. Debako Udalak III. Gortina Lehiaketa jarri du martxan Animadeba 2012 animaziozko zinema jaialdirako. Lanak bidaltzeko epea abenduaren 16an amaitzen da. Saria 700 eurokoa izango da. Oinarriak: www.deba.net atarian.

-"Zubeltzu" III. Bertso Paper Sariketa. Informazioa: aldizkari honetako 8. orrialdean zein www.deba.net atarian.

-VII. Tene Mujika Beka. Informazioa: aldizkari honetako 8. orrialdean zein www.deba.net atarian.

GAZTETXOEN BERTSO ESKOLA ITZIARRREN -14 urte artekoentzat-



NOIZ: ostegunero, 19:00etan.
NON: Itziarriko Eskolan.
Kontakturako: 637 06 32 26 (Ander)

Antolatzaileak: Itziarriko Bertso Eskola eta Andutz Kultur taldea.

ERAKUSKETAK TURISMO BULEGOAN

-**Nekane Lasarteren** erakusketa (koadroak), Turismo Bulegoan. Azaroaren 18tik 27a bitarte.

-**Einer Rodriguezen** argazki erakusketa, Turismo Bulegoan. Abenduaren 2tik 17a bitarte.

***Turismo Bulegoko ordutegia:** Astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00; ostiral eta larunbatetan: 10:00-14:00/17:00-19:30; igande eta jaiegunetan: 10:00-14:00.

IKASTAROK

-**EGUR TAILA: Zuriñe Gredillak** egur taila tailerrak eskainiko ditu ikasturtean zehar. Hilabetero egongo da horietan izena emateko aukera, eta talde bakoitzean zortzi lagun arituko dira gehienez. Klaseak astean bitan (3 ordu astean) izango dira. Informazio gehiago: 666 72 03 13 telefonoan edo Kalbeton Zumardiko 5.ean (9:30-13:00 eta 16:30-19:00).

-**KZguneak** ikastaro ugari eskainiko ditu azaroan (goizez) eta abenduan (arratsaldez): MUGIPU, OpenOffice Writer, dohainiko antibirus programak, Doodle, sare sozialak, Ubuntu... Izena emateko, kontsultatu www.kzgunea.net edo deitu 943 02 94 40 zenbakira.

-Eskuhartze Sozialerako Lahar Elkargoak "**Pertsona nagusietan portaerako eragozpenen aurrean jokatzen modua**" ikastaroa antolatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren laguntzarekin. Azaroaren 15, 17, 22 eta 24an eskainiko da ikastaroa, doan, Debako Arbil jubilatuen elkartearen (17:00-20:00). Pedro Bilbatua psikologoak gidatuko du. Izen-ematea: 663 05 72 23 edo formakuntza@laharelkargoa.org-en.

-Debanatura elkarteak **Mikologia ikastaroa** eskainiko du azaroaren 22tik 26ra bitarte (18:30-20:30), Kultur Elkartearen. Mikologia praktikoari eta baliabide mikologikoen kudeaketari buruzko ikastaroa izango da, teoria eta praktika uztartutako dituen. Interesatuak 695 783 656 telefonoan eman dezakete izena. Ikastaroaren prezioa: 30 euro.

DEBANATURA
Debako Natur Eskola

MIKOLOGIA AKTUA Mikologia Ikastaroa

Mikologia praktikoari eta baliabide mikologikoen kudeaketari buruzko ikastaroa. Ikastaroak teoria eta praktika uztartuko ditu.

HELBURUAK Eskualdeko espezie jangarri eta toxiko nagusiak ezagutu, bereziki baso hosto-orokorretan egoten direnak. Ondak sailkatzeko ezaguerri eta klabe nagusiak ikasi. Ondoren eta hauek ekosistemetan duten funtzio nagusien inguruko oinarriak nazioak ezagutu. Zurrera errespetagarria eta erabilera egokita transmititu baliabide mikologikoen inguruan.

dena emateko epea Debanaturaren azaroak 19ra arte

IRAILDIRA 5 eguneko iraupena izango du ikastaroak, azaroaren 22tik 26ra arte, 18:30etatik 20:30etara.

PREZIOA Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa da.

INFORMAZIOA Interesatuak 695 783 656 telefonoan eman dezakete izena.

NON Deban, Kultur Elkartearen

NOBI ZUZENDUTA Mikologi astekak, lehenago aldiz ondoko eta perre txikienganak interesa duten zaleak zita interesgarri andana eskainiko die.

Terrazko erakusketak, jaialdia, inus-erakusketak, herriko inpresen, pinho mikologikoen bilaketa, eta berriak.

JAR EZAZU ZURE
PUBLIZITATEA
ALDIZKARIAN!

berriketan@zuhatza.com



haizea
Estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº. 379

Higiezin Zerbiztuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3 20820 DEBA Tel.: 943 192 471 Tel./Fax: 943 192 303 urlo@urlosi.net



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




TAILLAGILEA

Zuriñe Gredilla Kareaga

Kalbeton Zumardia, 5
Tel.: 666 720 313
txirbila@gmail.com
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA




ISABEL
FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe . 20820 DEBA
943 029 186



AZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa
zugandik zugana



JANTZIDENDA
PAGOA

Lersundi kalea, 37
20820 DEBA



BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan traگوak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Kafetegia



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



LARRAMENDI
ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte
itxoiten dugu maiz

